DIBERTSIFIKAZIORANTZ

NEGOZIO BERRIEN GARAPENERAKO PROGRAMA

Programaren helburuak:

- **Barne-Ekintzailetza zer den,** praktikan nola jartzen den eta honek ekar ditzaken onurak enpresekin batera aztertu, ulertu eta sakontzea.
- Proiektuan parte hartzen duten enpresek, barne-ekintzailetza estrategiak praktikan jarri eta beraien enpresetan proiektuak aurrera eramaten lagunduko dien **tresna eta prozesuak** beraien esku ipintzea.
- Eskualdeko enpresen behar eta interesetan oinarrituz, negozio aukera berriak sortzeko **ekosistema aktibo eta konektatu bat** sortu, talde honen dinamika eta metodologia sortuz.

Programa:

1.- DIBERTSIFIKAZIO ETA BARNE-EKINTZAILETZA: TAILER TEORIKO - PRAKTIKOAK

Enpresei barne-ekintzailetza eta dibertsifikaziora gerturatzeko **sentsibilizazio tailerrak** eskainiko zaizkie lehen fasean.

4 tailer proposatzen dira, 2 ordukoak. Landuko diren edukiak ondorengoak izango dira:

- ESTRATEGIA:
  - Barne-ekintzailetzako estrategia baten bidez lortu nahi diren **helburuak eta horien jarduera-ildo nagusiak definitu.** Hauek, erakundearen plan estrategikoarekin bat egin beharko dute, baita beraien berrikuntza-plan edo estrategiarekin.
  - **Erakunde eta pertsona barne-ekintzaileen funtsezko gaitasunak** identifikatu eta partekatu, askotan enpresaren kultura baita estrategiak sustatzeko erronka handiena. Horrez gain, barne-ekintzailetzako talde batentzat egitura egokiena zein izango litekeen aztertuko da.
  - Enpresak aplika ditzaketen barne-ekintzailetzarako kudeaketa-prozesuen eta ereduen **jardunbide egokiak** partekatuko dira.
  - Jarduera-ildo guztien jarduna neurtzeko eta monitorizatzeko aukera emango duten **KPIak definituko dira.**

- KULTURA ETA PERTSONAK:
  - Kultura ekintzailea sustatzeko eta barne-sustatzaileen profilak identifikatzeko **jarduera-ildo nagusiak zein diren identifikatuko** ditugu.
  - Enpresek ekimen berritzaile berrien garapenean, **egun duten kultura aztertuko** dugu.
  - Lan talde txikietan banatuz, enpresek beraien kulturari dagokionez, berrikuntza eta barne ekintzailetza martxan jartzeko dituzten **zailtasun, erronka eta oztopoak partekatuko** dituzte.
  - Beraien taldeetan, ekimenak sustatzeko aplikatzen ari diren **kasu praktiko eta jardunbide egokiak azalduko** dizkiote elkarri.
  - Enpresa barruko DNA ekintzailea lortzeko palanka gisa balio duten **konpetentziak partekatuko** dira.

- IDEIEN SORRERA:
  - **Design Thinking** metodologia azalduko dugu, ideia berritzaileak sortzeko erabiltzen den método ezaguna. Metodología hori osatzen duten 5 faseak aztertuko dira (Enpatizatzea, Definitzea, Ideiak sortzea, Prototipatzea eta Testeatzea), fase bakoitza zertan datzan azalduz. Ondoren, enpresei fase bakoitzean inplementatu behar dituzten tresnak emango zaizkie, haiekin negozio-ideia arrakastatsuak sortu ahal izateko.
  - **Ideiak sortzeko garaian, enpresek dituzten baliabide eta gaitasunak identifikatuko** dira. Aurreko elementu hauek, garrantzitsuak izango dira barne ekintzailetza egiterako garaian eta ideia berriak nola sortuko ikusterakoan.
  - Enpresek dituzten **egungo bezeroak eta etorkizuneko bezeroak** irudikatzen ikasiko dute, hauen beharrak identifikatuz eta asetu gabe dauden behar eta aukerak identifikatuz, ideia berriak bideratzeko baliagarri izanez.

- INGURUAREKIN LANKIDETZA ETA EKOSISTEMA:
  - **Zer da berrikuntza irekia?**
  - Estrategia honekin lortu nahi diren **helburuak** eta lor daitezkeen **onurak.**
  - **Berrikuntza irekiko eredu** ezberdinak, existitzen diren tresna eta barne ekintzailetzako ekimenak.
  - Inguruko enpresen **jardunbide egokiak eta kasu arrakastatsuak.**
  - Enpresek ekimen ekintzaileak sortzeko funtsezko izango luketen kolaboratzaileen mapa eraikitzea eta bere berrikuntza-prozesua azkartuko duten eragileen identifikazioa.
  - Goierriko barne-ekintzailetza ekosistema sortzeko lehen urratsak emango dira, enpresa parte hartzaileen interes eta beharretan sakonduz eta inbertsio eta inguruarekin izan nahi duten harreman eta kolaborazio mota eta gaiak landuz.

2.- DIBERTSIFIKAZIO ETA BARNE-EKINTZAILETZAKO PROIEKTUEI LAGUNTZA

Programan parte hartuko duten eta haien erakundeetan proiektu ekintzaileak dituzten pertsonei, laguntza eta aholkularitza saio pertsonalizatuak eskainiko zaizkie.

- Enpresa bakoitzari **5 aholkularitza-ordu** eskainiko zaizkie.
- Lean Startup eta Design Thinking metodologiak aholkularitzaren lan-oinarria izango dira, enpresek jorratu nahi duten merkatu-aukera argi eta garbi identifikatu dezaten, zein bezero eta beharrei erantzungo dieten eta nola, hau da , zein balio-proposamen eta negozio-ereduarekin egingo duten.
- Helburu nagusia aholkularitzako **edukiak moldatzea** izango da, **proiektu bakoitzaren egoera eta beharretara.**
- Enpresa parte hartzaile bakoitzari, ekintzailearen barne-ekimena abian jartzeko edo garatzeko akzio plan bat emango zaio.

3.- EKINTZAILETZA EKOSISTEMA ETA INBERTSIO SAREA

Eskualdeko ekintzailetza ekosistema eta inbertsio sarea sortzea helburutzat izanik, eskualdeko enpresen inbertsiorako eta lankidetzarako gaitasunak eta interesak identifikatuko dira, eta Goiekik eta Goierri Valleyk jarduera definituko dute.

Horretaz gain, eskualdeko ekintzailetza eta barne-ekintzailetza ekosistema definitu eta antolatuko da.

Nola egingo dugu lan?

- Galdetegi bat inbertsio eta kooperazio interesak identifikatzeko.
- Inbertsio- eta lankidetza-interesak zehatzago aztertzeko, elkarrizketa indibidualak egingo dira profil ezberdinetako enpresekin.
- Enpresei eskainiko zaien zerbitzuaren definizio eta diseinua, behar eta ateratako konklusioen arabera.

Kronograma:

1.- Dibertsifikazioa eta barne-ekintzailetza: Tailer teoriko eta praktikoak	2.- Dibertsifikazio eta barne-ekintzailetza proiektuei laguntza	3.- Ekintzailetza ekosistema eta inbertsio sarea
APIRILA – MAIATZA	MAIATZA – EKAINA	UZTAILA – ABUZTUA
Apirilak 20 eta 27, eta Maiatzak 4 eta 11, 14:00etatik 16:00etara	21, 22, 23, 24, 25, 26 asteak	24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32 asteak

*Data eta ordutegi zehatzak definitzeko.

ANIMATU ETA PARTE HARTU PROGRAMAN!

Izen-emate data: 03/21-tik 04/04-ra